

Manuel Aznar Zubigarayren kazetari-iana: *Euzkadi* (1913-1918)

(Manuel Aznar Zubigaray's journalistic work:
Euzkadi, 1913-1918)

Díaz Noci, Javier
Universitat Pompeu Fabra. Roc Boronat 138.
08018 Bartzelona

Meso Ayerdi, Koldobika
Euskal Herriko Unibertsitatea. Sarriena auzoa, z/g. Leioa

Jaso: 2016.10.24
Onartu: 2016.11.05
BIBLID [eISSN 1988-3935 (2016), 15; 141-173]

Manuel Aznar Zubigaray (Etxalar, 1893-Madrid, 1975) Espainiako XX. mendeko kazetaririk ezagunenetako eta emankorrenetako bat izan zen. Ibilbide ideologiko anitz izan zutenen artean ere, ospetsuenetarikoa ere bai: hasieran tradizionalista Iruñean, gero Euzko Alderdi Jeltzalearen aldekoa Bilbon, liberala Madrilen eta Habanan, eskubitarra –eta frankista– berriz ere Madrilen eta Bartzelonan. El Sol eta La Vanguardia egunkarien eta Efe agentziaren zuzendaria (besteak beste), Euskal Herrian ere Euzkadi egunkarian lan egin zuen eta bertan bost urte baino gehiagotan hainbeste kronika zuzendu zuen. Horiexek dira, hain zuzen ere, lan honetan aztertzen ditugunak. Hain artean, bi orain arte ezezagun samarrak, euskaraz idatziak. Bestelakoak ere hainbat arlotan banatuta azertu ditugu: kirolak, politika, erlijioa eta gerra, Munduko I. Gerraren kronikagile gisa nabarmendu baitzen Aznar Zubigaray kazetaria.

Giltz-hitzak: Manuel Aznar Zubigaray. Kazetaritza. Prentsaren historia. Komunikazioaren historia.

Manuel Aznar Zubigaray (Etxalar, 1893-Madrid, 1975), fue uno de los periodistas españoles más populares y prolíficos del siglo XX. Incluso uno de los más renombrados entre aquellos que tuvieron múltiples rutas ideológicas: tradicionalista al principio en Pamplona, luego a favor del Partido Nacionalista Vasco en Bilbao, liberal en Madrid y La Habana, derechista –y franquista– de nuevo en Madrid y Barcelona. Director de los periódicos El Sol y La Vanguardia, y de la Agencia Efe (entre otros), en el País Vasco dirigió también el diario Euzkadi donde redactó multitud de crónicas durante más de cinco años. Éstas son, de hecho, las que analizaremos en el presente trabajo. Entre ellas, dos hasta ahora bastante desconocidas, escritas en euskera. Otras las hemos estudiado distribuidas en diferentes ámbitos: Deporte, Política, Religión y Guerra, ya que el periodista Aznar Zubigaray también destacó como cronista de guerra

Palabras clave: Manuel Aznar Zubigaray. Periodista. Historia de la prensa. Historia de la Comunicación.

Manuel Aznar Zubigaray (Etxalar, 1893-Madrid, 1975) fut l'un des journalistes espagnols les plus populaires et prolifiques du XXe siècle. Même l'un des plus renommés parmi ceux qui connurent plusieurs routes idéologiques : traditionnaliste au début à Pampelune, ensuite en faveur du Parti Nationaliste Basque à Bilbao, libéral à Madrid et La Havane, à nouveau de droite – et franquiste – à Madrid et à Barcelone. Directeur des journaux El Sol et La Vanguardia, et de l'Agence Efe (entre autres), au Pays Basque il dirigea également le quotidien Euzkadi où il rédigea une multitude de chroniques pendant plus de cinq ans. D'ailleurs, ce sont ces chroniques que nous analyserons dans le présent travail. Deux d'entre elles jusqu'à présent assez méconnues, écrites en basque. D'autres que nous avons étudiées séparément dans différentes rubriques : Sport, Politique, Religion et Guerre, car le journaliste Aznar Zubigaray se distingua également comme chroniqueur de guerre.

Mots-clés : Manuel Aznar Zubigaray. Journaliste. Histoire de la presse. Histoire de la communication.

1. SARRERA: METODOLOGIA

Manuel Aznar Zubigaray XX. mendeko kazetari espainiarren artean ezezagunenetariko bat da. Bere ibilbide profesionala ez ezik –eta bere lan idatziaren kalitate ukiezina ez ezik– bestelako arrazoiengatik ere ospetsua da Nafarroan jaiotako gizon hau. Behintzat, bi dira arrazoiak. Bata, bere aldaketa ideologiko askorengatik, bere gaztaroan tradizionalista izateagatik frankista izatera pasatu baitzen, bien artean abertzalea eta liberala izanik. Gaurko ikuspuntutik, harrigarria baita dudarik gabe hain pentsamolde aldakorra erakustea. Bigarren arrazoa –askoz koiunturalagoa, bestalde– bere biloba bat Espainiako gobernuaren presidentea izatera iritsi baitzen, alderdi espainiar kontserbadore edo eskuindarraren buru gisa: José María Aznar. Bi alderdi horiek oso liburu ezberdinek landu dituzte; alde batetik, Nafarroako Unibertsitatean defendaturiko tesi baten ondoren argitaratu zen *Manuel Aznar. Periodista y diplomático* liburuan Jesús Tanco Lergak Manuel Aznar Zubigarayren lan eta bizitza aztertu zituen; bestalde, Iñaki Anasagasti eta Josu Erkoreka EAJren Madrilgo diputatuek bere iragan nazionalista gogoratzen zuen liburu bat atera zutelako (*Dos familias vascas: Areilza-Aznar*. Madril: Foca, 2003).

Gure asmoa ez da, ordea, Manuel Aznar Zubigaray euskal abertzaletasunaren aldekoa (eta propagandista) izan zela gogoratzea edo azpimarratzea, ezaguna baita EAJren lehen egunkaria (*Euzkadi*) 1913ean argitaratzen hasi zenetik 1918. urtea arte bere kazetarien artean onenatariko edo ezagunenetako bat izan zela. Ez da gure asmoa, bestalde, gaurko alderdi espainiar baten buruzagietako baten aitonaren iragana gogoratzea. Ordea, gure asmoa kazetari on –eta euskaldun, gero ikusiko dugun bezala– baten hasiera nolakoa zen, eta bere testuak nolakoak ziren, aztertzea.

Hitz egin dezagun pixka bat erabilitako metodologiaz. Euskal Herriko komunikabideetan idatzi duten kazetari historikoen lana ezagutzea ezinbestekoa dugula deritzogu, denetariko kazetariak. Izan ere, behintzat katalogo bat egin eta beren obren nondik norako ideologikoak, estilistikoak, gai aldetikoak eta abar sakonki ezagutzea oso garrantzitsua iruditzen zaigu, eta hori egin gabe dago. Argi dago urte askotako –eta lan-talde baten jitea– dela hori. XX. mendeko kazetari batzuekin hasi nahi genuke. Gregorio Mujika horietako bat izan liteke, eta Eusko Ikaskuntzaren bizitzan zail da aurkitzen beste kazetari, idazle edo pentsalari garrantzitsuago. Bere figura erreibindikatu behar delakoan gaude, eta gerorako utziko dugu bere obraren ikerketa. Beste bat –asko daude– Manuel Aznar Zubigaray dugu. Nafarroako Etxalar herrian jaioa, 1912an Iruñean hasi zen idazten. 1913an Bilbora etorri eta jaio berria zen *Euzkadi* egunkarian hasi zen idazten, hainbat gairi buruz, 1918 arte. Hauxe da, momentuz –gero Madrilera eta ondoren Habanara joan baitzen– interesatzen zaigun garaia. Lan honetan bere artikuluen sailkapen bat egingo dugu hizkuntza, gai eta atalen arabera, eta eduki zein formaren inguruko analisi bat ere bai. Lan hau, haatik, Euskal Herrian egindako bere obraren ikerketan sarrera bat baino ez da, bestalde. Gogora dezagun, besterik gabe, Aznar Zubigarayk –bi abizenak erabiliko ditugu, bere seme nagusia ere, urte haietan Bilbon jaioa, bide batez esanda, Manuel Aznar ere deitzen zelako, eta

kazetaria izan zen bera ere– Bilboko bere etapa hartan beste komunikabide batzuetan ere artikulua argitaratu zituen, hala nola *Hermes* aldizkarian.

Sarrera honetan pixka bat luze aritzea zilegi bekigu. Beste tradizio batzuetan –eta beste arlo batzuetan; prosopografiari dagokionez, parlamentarioen edota diputazioen kargudunen kasurako– egin den bezala, ekimen sistematiko baten beharrea gaude¹. Komunikazioaren, eta kazetaritzaren, historiari dagokionez, dezente lan egin da komunikabideen historiari buruz, Euskal Herrian, bide batez esanda, hori ere falta bazaigu ere: Euskal Herriko kazetaritzaren historia orokor bat eta, areago, historia sozial bat, komunikabideen atzean dauden gizataldeen historia: kazetariak, enpresariak, publikoa. Baina askoz gutxiago egin da lan kazetarien historiaz. Kazetari banakakoen historiaz –biografia bat ez da hagiografia bat izan behar– hainbat gauza egin dira; kazetariei buruz, kolektibo edo gizatalde gisa, askoz gutxiago.

1.1. Produkzio zientifikoaren egoera

Kazetarien hiztegien produkzioa, irizpide zientifikoez egina edo ez, eskas samarra izan da. Espainian, baino, badaude saiakera batzuk aipatzea merezi dutenak.

XIX. mendean horrelako liburu batzuk argitaratu ziren. Lan txikiago batzuk (*Galería en miniatura de los más célebres periodistas, folletistas y articulistas de Madrid y su Apéndice*, Manuel Eduardo Gorostiza y Cepedak egina, 1822; *Galería de la prensa o colección de retratos políticos de los periodistas de España, hechos al daguerrotipo*, lau kazetariren profil batzuk, Juan Pérez Calvok idatziak, 1846) agertu eta gero, 1875ean benetako saiakera bat gertatu zJuan Pérez de Guzmán y Gallo-ren *Catálogo de ilustres periodistas españoles desde el siglo XVII (1600-1875)* izeneko liburua. José Altabellak zioenez, “se trata de una simple enumeración alfabética de nombres, seguidos –en algunos casos– de la ciudad de donde son naturales” (López de Zuazo, aitzin-solasa, 1980: 4).

Hala ere, garai hartako kazetari espainiarren erroldatik abiatuta biografi hiztegi bat egiteko lehen saiakera Manuel Osorio y Bernard-en *Ensayo de un catálogo de periodistas españoles del siglo XIX* izeneko liburua izan zen, 1904an argitaratua (mende oso bat geroago, 2004an, argitara emandako faksimil bat ere badago). Letra txikiko 500 bat orrialde dituen liburu bat da, lehenago –1903-1904 urteetan– koadernotxo-sorta gisa argitaratuta, non alfabetikoki 10.000 bat kazetariren izenak eta datu nagusiak biltzen dirizen-abizenak eta lerro bakan batzuk bere ekintza nagusia(k) adierazteko (halako egunkari edo aldizkari baten idazlaria edo zuzendaria, adibidez), batzuetan pixka bat gehiago dio, hala nola non jaio zen, zeintzuk izan ziren bere

1. Horretaz aritu ginen 2007-2008 ikasturtean Pompeu Fabra Unibertsitatean egindako egonaldian. Eusko Jaurlaritzaren laguntza bati esker burutu zen egonaldi hura, MOVG/2007 deialdikoa. Denboraldi hartan landuriko ikerketa baten datu batzuk lan honetan ere erreproduzitzen ditugu.

ikasketak, karguak eta lanpostuak. Liburu honen egilearen esanetan, zera da, “una ligera enumeración de cuantos han consagrado sus esfuerzos a la labor periodísticas, con somera indicación del servicio prestado y lugares y fechas en que lo ha sido”, haren eskasia handiak izkutatzen ez dituen (gogora dezagun lagun bakar baten emaitza izan zela), horietako bat, hain zuzen ere, horrelako ekimen bat zientifikotzat har zitekeen galdakizun bat: “No son muchas”, zioen Osoriok, “ni muy dignas de crédito las fuentes de información de que me he servido”.

Ez dugu ahaztu behar, autoreak berak ere kontuan hartzen du oso, non egin zen obra hau: kazetaritzarentzat halamoduzko estatus bat eskatzen den momentuan, “necesidad social y género literario” (Osorio, 1904: VIII-X). Genero honentzat “un capítulo para las retóricas” ere eskatzen da, hau da, modu akademiko batez geroago komunikazio-fakultateetan kazetaritza-idazkuntza deituko zen diziplina tratatzea. Manuel Osoriok berak bere obrari ezarritako epaiketa oso gogorra izan zen. José Altabellak, aldiz, zera dio, “la citada obra ha sido hasta la fecha material de consulta inexcusable en los trabajos de erudición periodística [y] todos los diccionarios enciclopédicos de rango nacional, así como los repertorios bio-bibliográficos de carácter regional o provincial, se han visto obligados a aprovechar el Osorio como primera fuente imprescindible” (Altabella, López de Zuazoren aitzin-solasean, 1981: 5). Proposatzen dugun lanerako ere ezinbesteko iturria da.

Larogei urte geroago bere kontzepzioan eta bere garapenean antzeko hiztegi bat argitaratu zen XX. mendeko espainiar kazetariei buruz, Manuel Osoriorenaren jarraipena izan nahi duena. *Catálogo de periodistas españoles del siglo XX* izenekoa da, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko irakaslea den Antonio López de Zuazo Melgar irakaslearen obra. 14.325 fitxa biltzen ditu, 1976-1980 urteen artean eginak, honako datu hauek biltzen dituen: kazetarien izen-abizenak, jaioterria, jaiotzeko data, kazetari gisa izan dituen lanpostuak eta karguak. Iturri nagusi gisa, López de Zuazok kazetaritzaren historiari buruzko liburuak, prentsaren urtekariak, entziklopediak, orduan indarrean zegoen Kazetarien Erregistro Ofiziala, memoriak elkarte profesionalen aktak eta komunikabideen urteroko lanpostuen zerrendak erabili zituen. Horretaz gain, 10.000 bat kazetariei edota beren senidekoiei kontsulta zuzenak egin zizkien.

Datu-metaketa hutsa baino gehiago izan nahi du López de Zuazoren liburuak, eta etorkizunean ere hainbat antzeko liburu argitaratzeko abiapuntua. López de Zuazo irakasleak 1980an Madrilgo Unibertsitate Complutensean bere doktorego-tesia defenditu zuen, *Bases metodológicas para la catalogación de periodistas españoles* izenburukoa. Beste iturri batzuen artean, kazetarien elkarten bazkieen zerrendak, garai frankistako Kazetarien Erregistro Ofiziala (1938an sortua) eta bestelako elkarte profesionalak erabili nahi zituen. López de Zuazok, bere *Catálogo*aren bigarren argitalpen batean, 45.000 fitxa eskaini nahi zituen, eta 2000 urtean, gutxi gora-behera, prest eduki nahi zuen. Lerro hauek idazten ditugunean, 2008an, lan hori ez da oraindik argitaratu. Bukatu gabeko lan bat bada ere (ahalegina eskerga da lagun bakar batentzat) eta 1976-1980 urteetan lanean ziharduten espainiar

kazetarien “foto geldi” bat bada ere (Osorioren liburutik hartutako beste 5.000 bat kazetariren fitxak ere eskaintzen bazituen ere, 1904tik), Antonio López de Zuazoren liburua oso erabilgarria da proposatzen ari garen lanerako.

Espanian egin den azken saiakera sistematikoa Eliseo Izquierdoren *Periodistas canarios siglos XVIII al XX: propuestas para un diccionario biográfico y de seudónimo* liburua da, 2005ean hiru liburukitan argitaratua.

Beste saiakera bat, baina ez hain sistematikoa, 1923-1924an *Anuario de la Asociación de la Prensa Diaria de Barcelonan* argitaratu zen kazetarien biografia-sorta dugu, *Vida de periodistas ilustres* izenburuaren pean. Bi liburukitan honako hauek argitaratu ziren Margall, Mañé i Flaquer, Feliu i Rodi, Milà i Fontanals, Joan Maragall, Francisco Peris Mencheta eta Luis Figuerola Anglada kazetarien biografiak.

Egin diren kazetari batzuen banan-banako biografiez gain (horietako bat Manuel Aznar Zubigarayrena, doktorego-tesi baten emaitza [Tanco Lerga, 1989, 2004]), figura zehatz horiei buruzko lanez aparte garai bateko kazetaritaldeei buruzkoak aipatu behar ditugu: esate baterako, Enrique Aguinagaren lanak, Errestaurazioko kazetari madrildarrei buruzkoa (Aguinaga, 1996), 1987an ahaztutako kazetari eta Gerra Zibileko kazetariei buruzkoak, biak Banco Exterior-ek argitaratuak, zentsura pairatu zuten kazetari katalanei buruzkoa (Bañeres, 1999), 1978ko Konstituzioaren jaiotzaz informatu zuten kazetariei buruzko liburua (Menéndez eta Fernández, 2004) edota Valladolideko kazetariei buruzkoa (Berzal de la Rosa, 2006).

Euskal Herriari dagokionez, oso gutxi egin da, horregatik egitasmo honi ekiteko beharra. Zerbait egin da, hala ere, euskarazko kazetaritzari buruz, batik bat, hala nola kazetari batzuen obra biltzen duten liburuetan agertzen diren aitzin-solasak eta ikerketak, oso ezberdinak, beste alde batetik, luzerari, asmo zientifikoari edo egiturari dagokienez. Aipa ditzagun Jean Hiriart-Urruty, Juan Bautista Bilbao *Batxi*, Jean Etchepare, Basile Joannateguy, Evaristo Bustinza *Kirikiño*, Esteban Urkiaga *Lauaxeta*, José María Agirre *Lizardi*, Piarres Lafitte, Pablo Fermín Irigaray *Larreko*, edota Enrike Zubiri Manezaundi kazetarien obrari buruzko liburuak, baita Xipri Arbelbidek Jean Pierre Goytinori buruz egindakoa edota Josemari Vélez de Mendizabalek Jokin Zaitegiren gainean idatzitakoa (ikus bibliografia). Merezki du aipatzea, bestalde, Eusko Jaurlearitzaren Hizkuntz Politikarako Idazkariak “Bidegileak” bildumaren barruan argitaratzen dituen liburu laburrak, batik bat Gregorio Mujika, Jean Hiriart-Urruty, Bittor Garitaonaindia eta Manuel Ziarsolo kazetariei buruzkoak, eta beren aldizkariei buruzkoak ere: *Euskal Esnalea*, *Eskualduna*, *Argia* eta *Eguna* (Garmendia, 1998; Arbelbide, 1998; Díaz Noci, 1998; Agirreazkuenaga, 1998). Bilduma haren barruan beste biografia batzuk badaude, euskal kulturaren figura batzuk, beste arlo batzuez gain kazetaritza ere landu zutenak.

Ziur aski gaur egun proposatzen dugun bezalako kazetarien hiztegi bat burutzeko orduan eredurik onena 1999an Jean Sgard irakaslearen

zuzendaritzaren pean argitaratutako *Dictionnaire des Journalistes* (1600-1789) dugu. Era berean, garai berdineko *Dictionnaire des Journaux* (1600-1789) liburuaren osagarria da. Horixe da, hain zuzen ere, guk ere egin nahi genukeena eta proiektu honetan proposatzen duguna: aldizkarien hiztegi bat eta, aldi berean, beraietan garai berean idatzi zuten kazetarien biografi hiztegi bat. Horrelako lan sistematikoaz baliatuta proposatu dezakegu kazetari zehatz batzuen lan osoaren ustiaketa eta edizio kritikoa.

Dictionnaire des Journalistes (1600-1789) liburua Jean Sgard-ek zuzendu zuen aurreko lan batean oinarritzen da, Presses Universitaires de Grenoblek 1976an argitaratu zuena. Behin betiko edizioa lehen aipatu duguna da, 1999koa. Azken honek 2.000 biografia ditu, XVII. eta XVIII. mendeetan frantsesez idazten zuten kazetarienak. Biografia bakoitza zortzi epigrafe jarraituz azaltzen da: egoera zibila, heziketa, lanbideko ekimenak, egoera ekonomikoa, iritziak, kazetaritzan egindako ibilbidea, argitalpenak eta bibliografia. Beste biografi hiztegi kolektibo askoren egitura berdintsua da, esate baterako, Agirreazkuenaga eta Urquijo irakasleen taldeak Euskal Herriko diputazioen karguei buruzkoak edota Bilboko alkateei buruzkoak. Roger Chartier historialari ospetsuak eskatu du, Sgard-en *Dictionnaireari* buruz argitaratu duen erreseina batean, bertsio elektronikoa batean gehitzea, eguneratzeko askoz errazagoa da-eta bide hau. Erabat ados gaude proposamen honekin.

Badago beste hiztegi bat, akademikoek eginga baina ez hain sistematikoa, interesgarria bada ere, zalantzarik gabe. *Imprensa brasileira. Personagens que fizeram história* obraren bi liburukiak dira, José Marques de Melo irakasleak antolatutak. “Alfredo de Carvalho” izeneko sarearen ekimena da, 2000tik 2008 arte kazetaritza brasildarraren bigarren mendeurrenaren ospakizunak antolatzen ari dena. *Imprensa* aldizkariak zenbaki bakoitzean esparru bat laga zien irakasle batzuek nahi zuten brasildar kazetari historikoari buruz biografia labur bat egin zezaten. Hori dela-eta, 36 kazetariri buruzko biografiak idatzi eta argitaratu ziren aldizkarian, lehenago, eta liburu gisa, gero.

1.2. Biografia zientzi genero gisa. Prosopografia²

Biografia zientzi genero gisa eta, zehazki, historiografikoa, beste biografia-mota batzuetatik aldentzen da, adibidez, nobelatuetatik (Maurois, 1928), arrazoi batzuetatik. Lehena: gizakien bizitza-ibilbide eta gorabeherak ezagutzeak gizataldeen portaera ulertzen laguntzen du. Haatik, prosopografia horrela definitu daiteke: “Gizatalde jakin batzuei buruzko biografia-sorta sistematikoak burutzea”. Prosopografia, berez, biografia kolektiboak egiteko teknika bat da, biografiatutako lagun guztientzat patroi batzuk jarraituz, 1930. urtearen inguruan hasi zena L. Namier lanekin, eta *Prosopographie des élites françaises* (1980) bezalako obrekin jarraitu dena.

2. Mikel Urquijo Goitia eta Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga irakasleei eman diguten gai honi buruzko informazioa eskertu nahi diet.

Ikergai honen klasikoetako batek, J. E. Nealek, dioenez, "I state the obvious when I say that we cannot fully understand the nature and functioning of any human group without knowing about the individuals who compose it" (Neale, 1951: 196). Alde batetik, oso genero irakurria da; Estatu Batuetako Kongresuaren Bibliotekaren arabera, biografi liburuak kontsumituenak dira.

Biografiak, historiografiaren genero moduan, badute bi mendetako tradizio bat. Ezaugarri zientifiko hauek dituen lehen obra *The Biographia Britannica, or the Lives of the most Eminent persons who have flourished in Great Britain and Ireland from the Earliest Ages down to the Present Times (1747-1766)* da. XIX. mendean ere, biografia kolektibo nazionalenganako interesa piztu zen, eta ordudanik bi tradizio handi bereizten hasi ziren, honelako obren merkatuan nagusituko zirenak: Europa kontinentaleko eredu eta anglosaxoia. Lehenaren bultzada eta arnasa gobernu-erakundeetatik etorri zen, erakuntza nazionalako prozesuan eredu garrantzatsua hartzen ziren lagun talde batzuen ibilbide publikoa deskribatzea garrantzitsua zelakoan. Eredu hau jarraitu da, batik bat, Suedian, Holandan, Austrian, Alemanian, Belgikan, Frantzian, Dinamarkan, Noruegan, Luxenburgon, Italian eta Espainian. Eredu anglosaxoia, aldiz, gehiago fidatzen da partikularren edo akademien zereginaz. Tradizio honen lehen obra *The Dictionary of National Biography* (Londres, 1885-1901) da. Bi eredu hauek, bestalde, erabat bateragarriak dira, zer esanik ez.

Ikuspuntu nazional batetik egindako hiztegiek, hala eta guztiz ere, badiutze arazo konpogaitz batzuk: hasierako data erabakitzea, nazio edo lurralde hori garai historiko guztietan ondo mugatu eta identifikatutako entitate politiko-administratibo bat izan denentz eta, batez ere, arazo nagusia da biografia-mota hauek inoiz ez direla bukatzen. Azken arazo hau etengabe liburu berriak argitaratzen edo, askoz azkarragoa dena, biografia berriak interneten argitaratuz. Horrelaxe, bestalde, eginda dauden biografiei datu berriak gehitu edo zuzendu dakizkieke.

Hauxe da, hain zuzen ere, gure proposamenaren beste arrazoi bat, hiztegiak bai inprimatuak, bai elektronikoak (internetekoak) izatea.

Beste biografi hiztegi-mota bat zera da, lagun-talde zehatz bati buruz ari dena. Urujio irakasleak dioenez, "gai edo pertsonaje-talde bat ikertzeko tresnak dira, osagarri objektibagarri batzuek mugatua". Kategoria honen barruan sartuko litzateke, argi eta garbi, gure proposamena, *Euskal Herriko kazetarien biografi hiztegia*.

Biografia zientifiko hauei buruzko interesa berriz ere piztu da azken hogeit urteetan, bai nazioarteko arlo zientifikoan (Backscheider, 1999: XIII), bai Espainian ere (Cartaña; Devesa, 2007). Benetan zientifikoak izan daitezten, Mikel Urquijo irakasleak dioenez (Urquijo, 2007), biografiak bi ezaugarri bete behar dituzte:

1) Biografiak lehen eskuko informazioaz egin behar dira, artxiboetan arakaturik, alde zuzenetik argitaratutako testu batzuk bakarrik erabili gabe.

2) Erabilitako iturrian biografia bakoitzean aipatu behar dira, ekintza zientifikoaren ohiko arauak jarraituz.

Espanian, eta Euskal Herrian (Mikel Urquijo eta Joseba Agirreazkuenaga irakasleek gidatutako ikerkuntza-taldea honen erakusgarria da), teknika eta korronte historiografiko honek etekin nabariak lortu ditu.

Giro akademikoan gehien erabiltzen den hiztegi biografikoen sailkapena K. Thomas-ena da (Thomas, 2005). Ikerlari honek hiztegi biografiak hiru kategoriatan banatzen ditu:

- 1) Hiztegi biografiko unibertsalak.
- 2) Ingurune geografiko zehatz bateko hiztegi biografikoak.
- 3) Taldeko hiztegi biografikoak

Gaur egun oso ezagunak dira taldeei buruzko hiztegi biografiak, batez ere argitalpen anglosaxoien merkatuan. *Companion* sortak, adibidez, holakoxeak dirá (adibidez, garai bateko idazle edo musikalariei buruzkoak). Onenetako bat *European Culture. A Contemporary Companion* izenekoa. Lan honetan Europako kulturaren izenik errepresentagarrien biografia egiten europar cultura bera ere zertan den argitzen saiatzen da.

Beste hiztegi batzuk, bestalde, langileen gizataldeaz aritu dira. Batzuk baino ez aipatzearren, mota honetakoak ditugu *Diccionari biogràfic del moviment obrer als Països Catalans* eta *Mujeres en la historia de España*. Metodologiagatik, eta Euskal Herriko ardura politikoa eduki zuten pertsonen biografia izateagatik, merezi du aipatzea Euskal Herriko parlamentarien hiztegiak (1993, 2007), Bizkaikoak (1995) eta Arabakoak (2004), Joseba Agirreazkuenaga eta Mikel Urquijoren taldeak egindakoak.

Oraingoan proposatzen dugun ikerketan, berez, talde bati buruzko hiztegi biografiko bat da. Beste alde batetik, esan zitekeen ingurune geografiko bateko hiztegi biografiko bat ere izan zitekeela (Euskal Herrikoa), baina honek badu aldeak eta desabantailak. Desabantaila nagusia, jakina, gure ikerketa gaur egun Euskal Herriko Autonomi Erkidegoan jaioak izan edo ez, bertan lan egin zutenak, beti edo denboraldi batzuetan kontuan hartzea. Azken hori ere argitu beharreko galdera bat, eta ikerketa Euskal Herrian egindako lanera mugatu behar dugun edo –logikoagoa iruditzen zaigu– kanpoan egindako karrera osoa, Euskal Herrikan kanpoko komunikabideetan, hartuko genukeen. Irizpide geografikoa beste ingurune administratibo batzuetara ere zabaldu daiteke, hala nola Nafarroako Foru Erkidegora edo Frantziako Pyrénées Atlantiques-eko euskal lurraldeetara, baina horrek bestela arazo batzuetara eramango ginduzke (bigarren kasuan, adibidez, lan-ekintza elebiduna, frantsesez ere bai, ikertutako kazetari askok eta askok eraman zutena), gaurko honetan alde batera utziko ditugunak.

Hizkuntza komunitatearen kontzeptua, ikerketa honi dagokionez, askoz erabilgarriagoa da. Kontzeptu hori 1920ko hamarkadako historiografia alemanetik dator (*Sprachgemeinschaft*), eta horrela definitzen da: “Gizatalde

bat non hizkuntza bat edo hizkuntz barietata bat ulertzen eta erabiltzen den”, eta beste batzuetan “interpretazio-komunitate” izenez ezaguna da (Burke, 2006: 11). Oso kontzeptu erabilgarria da, baina arazoak ere baditu. Peter Burkek berak ere gogoratzen duenez, batzuetan “kultura” edo “nortasun” kontzeptuak bezain mugagabea izan daiteke. Beste alde batetik, abantailak ere baditu: nagusia –Peter Burkerekin jarraitzen dugu–, “benetako komunitateak kaotikoak badira, komunitate idealak (‘komunitate asmatuak’, Benedict Anderson-en hitzak erabiliz) oso muga zehatzak dituzte”; desabantaila nagusia, bestalde, “homogeneitate bat, mugapen bat eta adostasun bat izango balitu bezala aurkezten dela, gero ere, bertako ikerketa bat burutzen denean, aurkitzen ez direnak” (Burke, 2006: 12). Azken hau gertatzen da muga zehatzak ez dituzten hizkuntza komunitateetan, askoz gutxiago gertatzen dena euskararen kasuan, bere inguruko hizkuntzekin konparatuta hain ezberdina delako. Euskararen kasuan, hizkuntz komunitate batez hitz egitearen zailtasunak hiru arrazoietatik letozke:

1) Komunitate estatal ezberdinetan jaio edo bizi ziren hizlari edo idazle (kazetari) batzuek aritzea: Espainia, Frantzia, baina bestelakoak ere bai, Estatu Batuetan kasu; horrek oso kazetaritza-tradizio ezberdinetan lan egitea esan nahi du. 1890eko hamarkadan, esate baterako, euskaraz egindako kazetaritza-ekoizpena Kalifornian, Hego Euskal Herrian edo Ipar Euskal Herrian oso ezberdina ze, oso ezaugarri ezberdinak zituen.

2) Garai historiko batzuetan oso euskalki ezberdinen hizlari eta idazleak izatea. Hizkuntza komunitate baten parte izatea oso ezberdina zeuskaldunak ziren, baina baita euskalki bateko hizlariak ere bai. Gauzak horrela, gogoratu behar da euskal aldizkarien ortografia batzeko lehen ahaleginak, Hendaian 1901ean, ez zirela arrakastatsuak; orduan, Ipar Euskal Herriko kazetariak bakarrik lortu zuten helburua, baina ez Hegokoek, non Sabino Arana Goiriren eta bere jarraitzaileen ideia linguistikoek zaila egin zuten. Gogora dezagun, azkenik, euskara batua 1968an eratzen hasi zela, eta gaur egun bere onarpen-maila oso altua bada ere, euskal kazetaritza bestelako barietate batzuen erabilera ere oso bizirik dagoela, euskalkiak eta tokian tokiko subeuskalkiak ere, neurri ezberdinean eta oso forma diferenteak hartuz. Eredu horien erabilera historikoari buruz, ikus Díaz Noci, 1994 eta 2002.

3) Beste gauza bat kontuan hartu behar da gure ustez: oso gutxitan erabili dutela kazetari euskaldunek euskara bakarrik; gehienetan, erdara bat ere erabili izan dute. Horregatik, erabiltzen ari garen terminologiarekin jarraitzearen, Peter Burkerena, ‘nortasun ekintza’ batzuk egiten dituzte, dauden egoera ezberdinen arabera” (Burke, 2006: 13), eta haren ondorioak, kasu batzuetan, egoera diglosikoetara irits daiteke, neurri batean zein bestean. Horren froga da ezizen ezberdinen erabilera, segun zein den erabilitako hizkuntza, baina segun zein den komunikabidea edo gaia ere bai.

Biografiatu beharreko kazetarien zerrendan, hona hemen gure proposamena, bere lanbidea Euskal Herrian arrazoi soziala dute edo zuten

komunikabideetan egin dutena sartu beharko genituzke, berdin da zein den bere jaioterria edo erresidentzia. Kazetari euskaldunen kasuan (esan bezala, proposatutako fase bakoitzean azpitalde bat izango litzateke), euskaraz egindako argitalpenak Amerika Latinoan (emigrazio edo erbesteratze arrazoiengatik) oso garrantzitsuak izan dira, eta horregatik “hizkuntza komunitate” kontzeptua erabiltzea komeni zaigu. Efektu akademikoetan, “Euskal Herria” hitza esanahi honekin hartuko genuke euskararen herria, hau da, euskaraz hitz egiten duten lagun-multzoa, beraz lurraldetasun baino gehiago kontzeptu pertsonal bat. Horixe egin genuen, esate baterako, gure doktorego-tesian (*Euskarazko prentsa XX. mendean, 1919-1937*), euskaraz egindako kazetaritza-ekintzaren ikuspegi ahalik eta orokorrena emateko nahian, Araban, Gipuzkoan, Bizkaian, Nafarroan, Laburdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan argitaratu ziren aldizkarietan, eta Parisen, Berlinen, Kalifornian edo Mexikon, esate baterako, argitaratuetan ere bai.

Lehen zailtasunetako bat, proposatzen dugun ikerketa hau egiterakoan, biografiatu beharreko kazetarien zerrenda hori osatzea izango litzateke, beraz. Horregatik, hiztegi biografikoek antzeko beste iturri batzuk ere erabiltzen dituzte, esan nahi dugu, hiztegiak eta katalogoak. Euskal Herriko kazetaritzaren kasuan, eta zehazki euskarazko kazetaritzaren kasuan, lan historiografikoek eta entziklopediek emango ligukete lehen izen-zerrenda hori.

Horretarako, hiru atal nagusi landu behar ditugu:

1. Euskal Herriko kazetari historiko ospetsuen kazetari-lanen obraren katalogazio, hustuketa eta analisiaren oinarri metodologikoak finkatzea, hurrengo urteetan hainbat kazetariaren obra sistematikoki aztertzeko.
2. Hainbat komunikabide –batik bat, egunkari- historikoren testuinguruan jartzea.
3. Horregatik, *Euzkadi* egunkariaren lehen faseko kazetari bat hautatu dugu, gero ere, hainbat arrazoiengatik, oso garrantzitsua izango zena: Manuel Aznar Zubigaray.
4. Garai hartako pentsamoldeak eta beren isla kazetaritzan aztertuko dugu.

Hain zuzen ere, horixe da Manuel Aznar Zubigarayen *Euzkadin* argitaratutako obrarekin egiten saiatuko duguna.

Alde batetik, ikertutako aldizkariaren (kasu honetan, *Euzkadiren*) fitxaren ezaugarriak kontuan izango ditugu. Esan bezala, hiztegi kolektibo zientifiko batek biografiaturiko lagun guztiei galdera berdinak egin behar dizkie produktu koherente eta homogeen bat lortu nahi izanez gero. Fitxa-tipo bat erabiliz lortzen da. Aldizkariaren hiztegirako proposatzen duguna (Díaz Nociren eta Muxikaren katalogoetan berdina aipatzen delako, Jacques Kayser-en fitxan oinarritua), alde batetik katalogo horietan ezarritako irizpideak erabiltzea da, eta fitxa horiei aldizkari bakoitzaren eboluzioaren adierazpen bat gehituz genieke: argitalpen-estrategiak, aldizkatasuna, tamaina, diseinua, irudien

erabilera, estilo-liburuak erabiltzen ote ziren, euskararen barietateen erabilera, idazle eta kazetarien presentzia, pentsamoldea, alderdi politiko, sindikatu edo elkarteekiko lotura eta, azkenik, baltzu-mota, erregimen fiskala eta ondareak.

Fitxa, beraz, honako hau da:

1. Erregistro-zenbakia
2. Izenburua eta izenburuarekin batera doazen iradokizunak
3. ISSN, baldin badauka (aldizkari modernoek)
4. Argitaratze-lekua(k)
5. Argitaldaria(k)
6. Baltzu edo elkarte-mota
7. Posta-helbidea
8. Aldizkatasuna
9. Agertzeko eguna eta unea (goizekoa, arratsaldekoa)
10. Hasierako urtea
11. Bukaerako urtea
12. Argitalpen-kopurua
13. Hedapena
14. Ale-kopurua edo irakurketa-indizea, iturria aipatuz
15. Ordainketa-bidezkoa (eta salneurria) / Dohainikoa
16. Komunikabide-mota: inprimatua (aldizkaria, boletina, komikia), irratia, telebista, internet.
17. Neurriak
18. Orrialde-kopurua
19. Argitaratzailea(k)
20. Inprimatzailea(k)
21. Zuzendaria(k)
22. Komunikabideak izan zituen kazetariak
23. Edukin-tipologia: informazio orokorra edo espezializatua (kulturala, politikoa, ekonomikoa, eta abar)
24. Erabilitako hizkuntza(k)
25. Hizkuntza bakoitzaren portzentaia
26. Hizkuntza barietatea (euskararen kasuan)
27. Osagarri grafikoen presentzia: marrazkiak, karikaturak, argazkiak, infografiak
28. Pentsamoldea(k)
29. Alderdi politikoezekiko lotura
30. Sindikatuekiko lotura
31. Bestelako elkarteekiko lotura: kulturalak, kirolekoak, laboralak, eta abar.
32. Debekuak, bahiketak, zentsura, pairatutako prozesu judizialak.
33. Ondarea eta erregimen fiskala
34. Enpresa argitaldariaren parte hartzea bestelako talde edo komunikabideetan
35. Enpresa argitaldariaren parte hartzea beste negozio batzuetan
36. Bildumak non daude
37. Bibliografia

38. Erabilitako iturriak

Gai hauetan inportanteenetariko bat 10. a da, zer esanik ez: biografia-tutako lagunak idatzi eta argitaratu zituen prentsa-artikuluak. Datu-base honetan artikulu horien izenburua, testua (edo argazkia edo marrazkia: kazetaritzat hartuko dugu gaurkotasunezko informazioa eskaintzen duen laguna, berdin zaigu erabiltzen zuen lengoaia edo teknika) non argitaratu zen (aldizkaria), data eta orrialde-kopurua. Gai horiek, gehi beste sail batek, artikuluen, albistearen, erreportajearen, testua edo argazkia, marrazkiaren, karikaturaren irudia jasoko zuena, kazetarien datu-basea osatuko lukete. Esan nahi da, behintzat merezi badu kazetari batzuen obra osoa argitaratzea eta editatzea, formatu inprimatuan zein digitalizatuan, proiektu honen beste sail batean ikusiko dugun bezala. Kazetaritza-lanen fitxa, beraz, honako hau izango litzateke:

1. Kazetaritza-lanaren izenburua
2. Autorea(k) [benetako izen-abizenak]
3. Kazetaritza-lan horretan erabilitako ezizena
4. Komunikabidea
5. Data
6. Orrialdeak
7. Erabilitako hizkuntza
8. Euskara bada, euskalkia

Behin hori eginda, kazetari bakoitzaren (kasu honetan, Manuel Aznar Zubigaray) testuak azertu daitezke.

Badago beste alderdi bat, interesatzen zaiguna, bai irakaskuntzarako, bai ikerketarako, kasu honetan eta beste kazetari batzuen kasuan: kazetari zehatzei buruzko webguneak eratzea. Ereduak bi dira: Venezuelako Andrés Bello Unibertsitatekoa, eta Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitateko Manuel Vázquez Montalbán idazle eta kazetariari buruzkoa³. Azken hau Jaume Guillamet katedradunaren eskutik sortu da, bere ikasgaiaren ikasleen laguntzarekin egin da. Vázquez Montalbán-en kazetaritza-testu guztien erreferentzia, biografia bat, eta hari buruzko elkarrizketa batzuk eskaintzen dira. Gerora ere eredu hau kontuan hartzekoa delakoan gaude, eta horregatik Manuel Aznar Zubigarayk *Euzkadin* argitaratu zituen artikuluak digitalizatu ditugu, aztertzeko eta gero katalogatzeko eta argitaratzeko.

Ekimen hau, izan ere, halako proba bat bailitzan har daiteke; pertsona bati buruzko ondorioak ez ezik, landutako metodoak lantzea ere izan dugu ikerketa honen helburu.

3. <http://www.upf.edu/depeca/depeca/mvm/index3.htm>

2. EUZKADI

Has gaitezen pixka bat argitzen zer izan zen *Euzkadi*, eta zein izan zen Manuel Aznar Zubigaray bere jaiotzan eta bere garapenean izan zuen zeregina. Sabino Arana Goirik Euzko Alderdi Jeltzalea sortu ondoren, bozemale batzuk ere sortu zituen XIX. eta XX. mendeetako uztartean (Díaz Noci, 1995), *Baseñitaña* eta *Bizkaitaña*. Ez ziren egunkariak. Haien ondoren sortu ziren *Nafartaña*, *Gipuzkoaña* eta *Arabaña* ere ez ziren egunkariak. Estrategia erabat aldatu zen xx. mendean eta, herrialde bakoitzean aldizkari bana argitaratzearen ordez (edo haiekin batera argitaratuz) egunkari bat kaleratzea erabaki zuten. Dirudienez, erabaki haren eta beste askoren atzean Engrazio Arantzadi *Kizkitza* bazegoen. Iturri gehienek (Granja, Díaz Noci, Tanco Lerga) halaxe esaten dute: 1913an Bilboko egunkari abertzalearen lehenengo alea kaleratu zenetik Gerra Zibilarekin batera 1937an desagertu arte, haren sostengua izan zen, ez beti –agerian behintzat– haren zuzendaria⁴. *Euzkadi*, Euzko [sic] Alderdi Jeltzalearen beste aldizkari guztiak eta geroko gehienak bezalaxe gaztelaniaz idatzia zen batik bat, *Euzko* [sic] atal bat izaten bazuten ere. *Euzkadik* ere halakoxea izan zuen, Resurrección María de Azkuerekin trebatutako euskaltzale eta kazetari baten zuzendaritza pean (Díaz Noci, 1995; Kintana, 2002): Evaristo Bustintza *Kirikiñok* zuzendu zuen hil arte (1927), gero Nikolas Ormaetxea *Orixe*, Esteban Urkiaga *Lauaxeta* eta Tomas Agirre *Barrenso* izan ziren kudeatzaileak.

Euzkadi informazio orokorreko egunkaria izan zen, aurreko aldizkari jeltzaleak ez bezala. Denetarik informatzen zupolitikaz, erlijioz, gizarteaz, kirolaz ere. Hori lortu ahal izateko, Aranzadik –1873an Donostian jaioa, hasieran tradizionalista, beti katolikoa, Sabino Aranaren aldizkarietan idatzi zuena– talde bat bildu zuAnacleto Orueta, Luis Eleizalde (euskaltzalea bera ere, jeltzalea eta *Arabaña*en arduraduna), *Kirikiño* euskarazko testuak eta atala gidatzeko, eta gazte nafar bat: Manuel Aznar Zubigaray. Etxalarren jaioa 1893an, bera ere tradizionalista izan zen jeltzalea izan aurretik, eta katolikoa beti, katoliko sutsua. Eta, gero ikusiko dugun bezala, euskalduna, eta euskaldun iaioa ere (urte haietan behintzat). Hogei urte baino ez zituen Bilbora iritsi eta 1913ko otsailean *Euzkadi* lehen aldiz argitaratu zenean.

Denetarik idatzi zuen, eta zuzendaritzan ere lagundu zuen Aznarrek bertan egon zen urteetan. *Euzkadin* zegoenean soldadutza egin, bere lehen emaztea ezagutu, lehen semea eduki eta kazetari bihurtu zen Manuel Aznar. Antzerkilan bat ere idatzi zuen (gaur egun galdua dena, egunkariaren orrialdeetan iragarria eta goraiatua), politikan eta hiriko bizitza kulturallean ere parte hartu zuen. Mendearen bigarren hamarkadan, baino, Madrila joan zen Nicolás de Urgoitiaren kazetari-egitasmo batean parte hartzera, *El Sol* egunkaria. Bere bizitza luzearen lerro nagusiak ezagun samarrak dira: Kuban

4. Tanco Lergak (2004: 52) jasotzen zuen Aznarren aitoren bat, 1919an egina, “A mí me llamaron a Bilbao para fundarlo y dirigirlo [*Euzkadi*], acompañado de otros muchachos, de los cuales el único que había escrito en periódicos era yo”, Egi osoa ez dena, Aranzadik aspalditik egunkarietan idatzen baitzuen.

ere beste egunkari bat bihurtu zuen, *El Liberal*, Espainiara itzultzean bere ideientzako gerizpea beste aldizkari eta pentsamolde batzuetan aurkitu zuen, Gerra Zibilean Francoren aldekoa izan zen, *La Vanguardia Española* zuzendu eta diplomatikoa izan zen. Bilbon izandako bere semea, Imanol, Manuel bihurtuta kazetari ere izan zen eta Efe agentzia zuzendu zuen. Saga familiarren hirugarrena, Manuel Aznar Zubigarayren biloba eta Manuel Aznar Acedoren semea, José María, Espainiako presidentea izan zen mendearen bukaeran.

Azter ditzagun, baina, Manuel Aznar Zubigarayren testuak, eta bertan agertu zituen gaiak eta pentsaerak, *Euzkadi* egunkariakoak⁵. Denetariokoak izan ziren, bere izena edo, gehienetan, hainbat goitizen erabiliz (garaiko ohi-tura zen, bestalde; hain lantalde txikietan gizon baino izen gehiago zeuden). Generoak, ordea, ez ziren horrenbeste. Batik bat, Aznar Zubigarayk bat baino ez zuen erabili, kronika. Gaiak, ordea, lau taldetan bana ditzakegu: kirola, erlijioa, politika eta gerra (Lehen Mundu Gerraren kronista ospetusa izan zen). Bosgarren bat gehi genezake, labur-labur landu bazuen ere: euskara, bere ama hizkuntza, pare bat testu argitaratu baitzituen oso euskara txukunean

5. Ez ditugu kontuan hartuko Bilbon bizi zenean beste aldizkarietan argitaratutakoak, oso interesgarriak badira ere: *Juventud Vasca* edo, batez ere, *Hermes* aldizkarietan.



Euzkadi egunkariaren lehen zenbakia, 1913ko otsailak 13

Kirola

Euzkadi egunkariaren lehen zenbakian (1913ko otsailaren 13koa) kirolari buruzko atala agertu zen lehen aldiz ere bai. Gaztelaniaz idatzia zen, esparru aldakorra betetzen zuen azken orrialdeetan, zutabe batetik orrialde osora

batzuetan. “El cronista” –Manuel Aznar Zubigaray bera?– delako batek atala nolakoa izan zen adierazten zuen. Atala honetan hasi zen Aznar bere goitiz inospetsuena erabiltzen: *Imanol*, izan ere bere izena Sabino Arana Goiriren arauetara moldatua⁶. Ez zen kirol atalean agertzen zen sinadura bakarra: *Irrintxi* delako batekin, batik bat, konpartitzen zuen lana. Pilotaz eta futbolaz idazten zuten, batez ere. Oso kirol ezberdinak, sozialki eta politikoki ere oso ezberdinak. Bata, indibiduala, herrietan oso errotua, erlijio-gizonek txit errespetatua, aspaldikoa, *tradizionala* nolabait. Bestea taldekakoa (Bilboko Athletic-ek jasotzen zuen arreta *Euzkadiren* orrialdeetan, ez Euskal Herriko beste taldeek), inportatua, hirietan nagusi, eliztarrek gorrotatua, moderno. Nolabait, alderdi jeltzalearen bi arima erakusten zen arlo horretan ere bai (Díaz Noci, 2002). Beste kirol batzuez ere informatu zuten *Irrintxi* eta *Imanol*ek: orduan boladan zeuden *yachting boxing* eta borroka greziar-erromatarra, esate baterako, edo rugbyaz. *Kanene* delako batek laguntzen zuen astiro. Bilboko futbol-taldea, gogora dezagun, EAJren garaikidea da, eta historian zehar alderdi honek, edo bere gizonak (eta emakumeren batek) zuzendu dute: garai hartan, Sota ontzigileek. San Mamés futbol-zelaia erakitzeaz zegoen.

Atala laster garatu zen. Martxorako ez zen batere arraroa (behintzat, astean behin) orrialde oso bat eskaintzea, marrazkiak eta guzti. Informazioaren zentroan, futbola eta Athletic. Madrilgo informazioak (eta nazioartekoak, batzuetan) eskaintzen ziren. Hor atzean, ideologia oso bat, sozializazioari buruzko pentsamolde oso bat, Ingalaterratik Sotatarrek ekarria: amateur eta profesionalak bereizten ziren. Belaustegi goitua bezalako jokalariek batek –abertzalea, amateurra, patrizioa, euskalduna eta euskaltzalea– gizatalde hiritar, burges eta landuaren ordezkaria, Euzko Alderdi Jeltzalearen paradigma (gero ANVra joan zen *Belauste*). *Pichichi* bezalako jokalariek, bestalde, gizatalde baxuago baten ordezkariak dira, pilota baten atzetik joatearen –eta espektakulu bat ematearen– truke kobratzen zutenak. Langilearen paradigma: gol gehien sartzen zuen jokalaria.

Haien erdian, Acedo bezalako jokalaria bat. Familia onekoa, baina ez euskalduna, profesionala, bi mundu horien artean zegoen. Haren arrebarekin ezkondu zen, 1915ean, lesionatuta zegoenean bere etxera elkarrizketa bat egitera joan zitzaion kazetari gaztea: Manuel Aznar Zubigaray.

*Imanol*en lehen kirol-kronika –*Imanol* sinatzen zuen kirol-atalean– 1913ko apirilaren 28koa dugu: Kopako partidu bat Real Sociedad eta Bilboko Club Deportivoaren artean. Aznarrek lerroak behar ditu, eta aurkitu ezin: “Apremios de espacio nos impiden ser todo lo extensos que quisiéramos”. Partida, preludio bat besterik ez, “¡tantas ganas como de hay de verlo jugar [Real Sociedad] contra el Athletic!”.

6. 1913ko apirilaren 22an “Milonao” delako batek sinatutako artikulu bat agertu zen *Euzkadin*, “Vida local” atalean. Baliteke *Imanol*en metatesi bat izatea.

VIDA DEPORTIVA


Un "back,, de bombo y platillos

PARA DON LUIS DE SOLAUN

En esta serie de caricaturas y bocetos, como los llama mi amigo IRRINTZI, se he tomado hoy, lector sportivo, con el primero de los *Lobos* que juegan en pista en el Athletic. Mañana te contará IRRINTZI cosas del segundo Luis, que á una cosa de que hoy te caricaturizo forman la pareja de backs que son capaces de tener en jaque á media humanidad foot-balicista.

Don Luis de Solaun é Igartua tiene en su vida, fuera del foot-ball, cosas de un encanto indecible.

Como foot-ballista lo conoces tú mejor que yo, lector de los shoots. Esas patadas monumentales, que ponen el pánico en el delantero que quería prepararse para shootar; esas entradas, no tan firmes como las del otro Luis, pero más sensadas (también en el foot-ball cabe lo sensado); y ese esperar el balón con una serenidad pasmosa y digna de esculpirse en bronce, ¿quién no los ha admirado en una de las tardes gloriosas del Athletic? ¿Quién no ha visto con un gesto de pasmo ese juego rápido y nervioso, desconcertador, que ha conseguido dar glorias al Athletic, y contragar sportivamente la pierna de Solaun?



Baseko kazetari zen artean Aznar Zubigaray, ohar laburrak idazten zituen 20 urte baino ez zituen mutil nafarrak, askotan *telefonemaz* baliatuz. Noizbehinka, perfilen bat, jokalaria baten erretratua metaforaz beteriko testu batekin (“Y así marcharían mientras Ibarretxe tocaría en el acordeón una pieza guasona, y Solaun marcaba con un glorioso chin chin, el paso de marcha triunfal [...]. La música ha anidado, lector, en el alma de D. Luis de Solaun é Igartua”), karikatura batez lagundua (vide *Euzkadi*, 1913ko maiatzak 9).

Lehen urte hartan maiatzean ere beste kirol batzuez ere aritzen hasi zen; gaur harrigarri samarra bada ere, grezia-erromatarra gustatzen omen zitzaion. Hamar bat artikulu idatzi zituen 1913an; baita rugbyaz ere. Beste kirol batzuez ere aritu zen Aznar Zubigaray hurrengo urteetan, noizbehinka. 1914ko otsailean, adibidez, igerilariez eta arraunlariez idatz izuen, beti ere bere izpiritu garai-lea erakutsiz: “Podemos ser ganadores”. Hala ere, futbola zen bere kuttuna. Argi dago estrategia, eta profesionalismoa (1914ko martxoak 20), interesatzen zitzaiola, eta osagarri sentimental ere bazeukala. Esan bezala, laster ezkondu zen Athletic-en jokalaria baten arrebarekin. Aquilino Acedo aurrelariaren koinatu bihurtu zen Aznar; berari dedikatu zion testu oso bat 1914ko martxoaren 2an.

PAGINA DEPORTIVA



AQUILINO AZEDO

